

Egia esan



JOSE IGNAZIO
ANSORENA
TXISTULARIA

Egia esan, ez dakit nola hasi zen, hedabideetan, kirolarien elkarrizketetan, *egia esan* errepikatzeko ohitura. Pilotariak, txirrindulariak, futbolariak... Aipamen hori egin ezean, gezurra esango zuten? Ebanjelioetako *Benetan diotsuet* imitatu nahia?

Hedabideetan ere agertu ziren Iruñeko alkate Asironen hitzok: sanferminak munduko jairik hoberenak dira. Eskerrak ez zuen “egia esan” tartekatu, sanferminak ez baitira munduko jairik onenak. Horrelakorik ez dagoelako eta, txistularien saioak kendurik, zabarkeria ugari dituztelako. Egia esan, entzierro aurretik santuari eskainitako kantua euskaraz eginik puntuak irabazi dituzte. Baina itzulpena azentuaren aldetik mingarri gertatzen da, *San Férmín* hori... Hobeto: *Entzun, Fermin santua*. Eta kantaera, berezko hirunakako erritmoa galduta? Egia esan, hasi beharra dago txukuntzen, bestela Hemingway bera berpiztuko da fundamentua jartzen hasteko.

Egia esan, zabarkeria oso hedatuta dago festetan. Larrienak, haur txikientzat antolatutakoetan. Eskoletan ikasturte amaierako eta bestelako jaialdietan, adibidez, nolako eredia saltzen diegu, megafonia kaxkar kaltegarrien bitartez inguruko guztien belarriak punitzea normalizat ematen? Gurean arduradunei galdetu nien zergatik jartzen zuten zigor auditibo hura eta erantzuna: giroa jartzeko. Gogorra

da egun pedagogiari hainbeste garrantzi ematea hitzez, eta giroa zer den nahastea. Baionako festetan hasi omen dira kezkatzen adingabekoak ordu txikietan kaleetan beren gisan ibiltzen uzten dituztelako guraso askok. Egia esan, nolako kaka nahaste sozialak antolatzen ari garen konturatzen hasten bagara, ez dago gaizki.

Egia esan, egia dagoenik ez da egia. Baina ez da egia egirik ez dagoenik. Egia txiki, diskretu, apal ugari daude hainbat txokotan gorderik eta pixkana bilatu behar dira bizitzan aurrera egiteko. Bestela geldirik geratzen gara edo atzera egiten.

Egia da, ordea, gezurrak daudela. Norbanakoen libertatea, esaterako. Galdetu psikiatrei zenbateraino garen geure buruen jabe. Maitasunaren bertsio zabalduena, hedabideetan eta liburuetan, gezurra da. Berdintasunaren kontua ere traka gogorra. Egia esan, gezurra bera ere gezurra da. Atal txikietan gezurrak esan daitezke. Atal handietan hobe isiltzea. Pertsonak fikzioez elikatzen garen piztiak garelako.

Egia esan, egia *berdadero* eta bakarra poesia da. Ikastaroa egiteko entzun Euskadi Irratian José Luis Padrónen *Lizardiren Baratza* programa. Eta masterra osatzeko, irakurri Leire Ugadiren *Simulakro bat* poema liburuan *Egia esan* olerkia. Honela amaitzen da: *Ez nuen egirik esan, zuek gezurra esan zenidaten arte*. ●

Ekarri seiko hori



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Behin batean, esku bakoitzean sei hatz zituen ume bat ikusi zuen Kelly doktoreak. Gurasoek ebakuntza egiteko erabaki irmoa hartua zuten, baina umeak ez zuen nahi. Mutikoak sei edo zazpi urte izango zituen, eta ederra zen.

– Ez! Nahi ditut denak. Nireak dira eta nahi ditut! –esan zuen haurrak.

Pentsatu nuen Kelly zaharra umeari ebakuntza egiteko arrazoiak ematen saiatuko zela, baina, horren orde, gurasoei esan zien umeak bere berezitasuna gorde nahi zuela.

– Eta zergatik ez? –esan zuen medikuak. Gurasoak ezin sinetsiak zeuden. Doktoreak adierazi zuen haurrak iritzia

aldatuz gero ebakuntza egiteko arazorik ez zela izanen. Jakina, kasu horretan, zenbat eta gazteago, hobe.

–Gustatzen zait nola defendatzen di-tuen bere eskubideak. Jarri hemen, seme –eta eskua eman zion mutikoari.”

Lucia Berlinen narrazioak aurrera jarraitzen du: gurasoak purrustaka joan ziren medikuarenetik eta haurra, berriz, irribarre zabal-zabal batekin.

Lerro batzuk beherago, honela dio narratzaileak: “Zer dute txarrik sei hatzek esku batean? Edozein modutan ere arra-roak dira hatzak, behatzak, ilea edota belarriak bezala. Nik, adibidez, denok isatsa izatea nahi nuke”. ●